

Zein dira behar ditugun elementu garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

- **Baliabide fisikoak**

Baliabide fisikoei dagokienez biltegi bat behar izango dugu armairuko atalak gorde ahal izateko. Atal horiek kontsumitzaileari bidaliko zaizkio eta hark muntatuko du.

Set bat beharko dugu non armairu inteligenteen programazioa aurrera eramango den.

- **Giza baliabideak eta intelektualak**

Gure proiektuarentzat, gu bazkideak izanda, hornitzaile hauek garrantzitsuak dira, haien lanak bateratzeak bideragarritasuna eta eraginkortasuna eskaintzen dielako proiektuari. Haizea del Barriok moda-azterketak eta tendentziak ezagutzen ditu, Amaïur Garcia de Vicuñak teknologia digitalen arloan esperientzia handia du, Telmo Blazquezen sentsoreak eta informatikari buruz ezagutza handiak dauzka, eta Izaro Zenarruzabeitiak harremanetan egoteko eta negoziatzeko gaitasuna izango du, hornitzaileekin harremanetan egoteko.

- **Finantza-baliabideak**

Aurreikusten dugunaren arabera, jakinda lehenengo aldiari 20 armairu ekoiztuko ditugula, 6.000€-ko diru-laguntza eskatuko diogu bankuari; izan ere, biltegi bat eta materiala beharko dugu.